

EBAZPENA, 2015eko irailaren 7koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Ebaluazio Batzordeen kide batzuk izendatzea xedatzen duena. Batzorde horiek Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle Ikertzaileen Ebaluazio-Programa, Banakako Ordainsari Osagarriak emateko izango dira. Ekainaren 28ko 2012/13 Legean, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa, xedatzen duenari jarraiki,

2012/13 Legean, 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Aholku Batzordeak proposatuta, Koldobika Josu Bijuesca Basterrechea eta Pilar Roig Picazo Giza Zientzietarako Batzorde kidea izendatzea.

Bigarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 7a.

EVA FERREIRA

Unibasqeko-zuzendaria,